

GIG 10

DEBAKO MEGABRETXA

BALIO INTRINTSEKOA: 2

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Herriaren hegoaldean, 60 metrotik gorako muino handi samarra dago. Megabretxa bat da, 25 metrotik beherako zenbait olistolitoz nahiz izaera desberdineko bloke soltez osatua. Blokeak lutitazko matrize batean bilduta daude, erabat desordenatuta, eta gehienak kareharri urgondarrezkoak eta lutitazkoak dira.

Megabretxa honen sedimentazioa energia eta dentsitate handiko grabitazio-mekanismo batekin dago lotuta, seguruenik: sakonera txikiko eremuetatik ezpondan behera irristatu zen (arrezife-kareharriak ari ziren eratzen plataformako eremu horietan), arto sakonaren hondoan metatu arte; flysch beltza eratzen ari zen lekuan metatu arte, alegia. Badira, halaber, periodo bereko beste grabitazio-metakin batzuk, eta horregatik, badirudi lurrikara batekin edo gehiagorekin lotuta daudela horiek guztiak; lurrikarek itsas hondoak ezegonkortuko zituzten, eta eskala handiko grabitazio-luizi horiek eragin.

NOLA BERTARATU

Azalaramendua Deban dago, herrian bertan; Agirre jauregitik hegoalderantz jo behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Azalaramenduaren ikuspegi orokorra: etxe artean dago, eta oso hondatuta.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552263 m / Y= 4793394 m / Alt.= 22 m



Ezpondan beherako desplazamenduaren ondorioz tolestutako lutitazko bloke bat, gertutik ikusita.